

ERANSKINA

BARRUKO INFORMAZIO-SISTEMA

Funtzionamendu-arauak eta informazioa kudeatzeko prozedura

1.- SARRERA

Barruko informazio-sistema multzo integratu bat da, komunikazioak jasotzeko barne-kanalak eta informazioak kudeatzeko prozedurak osatua. Barruko informazio-sistemaren arduradunaren agintepean funtzionatzen du.

Helburua da Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa eta ustelkeriaren aurkako borroka arautzen dituen otsailaren 20ko 2/2023 Legearen 3. artikuluan aipatzen diren pertsonak ezagutzen dituzten jokabide irregularrak jakinarazi ditzaketela bermatzea, eta haien jarraipen eraginkorra egin ahal izatea, erabateko bermeak eskainiz independentziari, konfidentziasunari eta segurtasunari dagokienez. Gainera, bermatu behar da barruko informazio-sistemara jotzen dutenek ez dutela errepresaliarik jasango.

Barruko informazio-sistemaren helburua da lan- edo lanbide-testuinguru batean arau-hauste penal edo administratibo larriak edo oso larriak hautematen dituzten eta bertan araututako mekanismoen bidez jakinarazten dituzten pertsonak babestea.

Beraz, arau-hausteak edo jardunbide desegokiak prebenitzeko, detektatzeko eta konpontzeko sistema bat da. Sistema horrek bermatzen du balizko informatzaileek eskura duten informazioa erraz eta konfidentziasun osoz eman ahal izatea, SURBISAK, ahal den guztietan, arazoa ikertu eta konpondu dezan.

2.- APLIKAZIO-EREMU MATERIALA

Irregularitasun hauek komunikatu ahalko dira:

- a) Europar Batasuneko Zuzenbidearen arau-hauste izan daitekeen edozein ekintza edo ez-egite, baldin eta multzo hauetako batean sailkatu ahal bada:
 - Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko urriaren 23ko 2019/1937 (EB)

Zuzentarauaren eranskinean zerrendatutako Europar Batasunaren ekintzen aplikazio-eremuan daudenak (zuzentaru hori Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa da), barne-ordenamendu juridikoak ekintza horiei buruz egiten duen kalifikazioa edozein dela ere.

- Europar Batasunaren finantza-interesei eragiten dietenak, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (EBFT) 325. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Barne-merkatuan eragiten dutenak, EBFTren 26. artikulua 2. apartatuan jasotzen den bezala. Kasu honen barruan daude Europar Batasunak lehiaren arloan eta estatuek emandako laguntzen arloan ezarritako arauak haustea, bai eta barne-merkatuari buruzko arau-haustek ere, sozietateen gaineko zergaren arauak hausten dituzten ekintzekin lotuta, edo abantaila fiskal bat lortzeko helburua duten praktikekin lotuta, horrek sozietateen gaineko zergari aplikatu beharreko legeriaren xedea edo helburua desitxuratzen badu.

b) Arau-hauste penala edo arau-hauste administratibo larria edo oso larria izan daitekeen edozein ekintza edo ez-egite.

3. - APLIKAZIO-EREMU PERTSONALA

SURBISAren barruko informazio-sistemak aukera emango du 1. apartatuan aipatzen diren arau-hausteei buruzko informazioa emateko 2/2023 Legeak (otsailaren 20ko 2/2003 Legea, Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa eta ustelkeriaren aurkako borroka arautzen dituen) 3. artikuluan aipatzen dituen pertsonari.

Horrela, bada, barruko informazio-sistema honek zenbait pertsona babesteko helburua du: SURBISArekin lotura profesionalak edo lanekoak dituzten pertsonak, goi-kargudunak, zuzendaritzako langileak, harreman profesionala amaitu dutenak, boluntarioak, praktiketako edo prestakuntza-aldiko langileak, bekadunak (ordainsaria jaso zein ez), hautaketa-prozesuetan parte hartzen duten pertsonak. Baita autonomoak ere, edo kontratistentzat, azpikontratistentzat eta hornitzaileentzat edo haiek gainbegiratuta edo zuzenduta lan egiten duen edozein pertsona. Babesa emango zaie, halaber, informatzaileei laguntza ematen dieten pertsonari, errepresaliak jasan ditzaketen haien inguruko pertsonari, eta informatzailearen jabetzakoak diren pertsona juridikoei, besteak beste.

4.- BARRUKO INFORMAZIO-SISTEMAREN FUNTSEZKO EZAUGARRIAK

Ezartzen den sistemak ezaugarri hauek ditu:

- Aukera ematen du pertsona guztiek kategoria jakin batzuetako arau-hausteen berri eman ditzaten.
- Modu seguruan diseinatuta, ezarrita eta kudeatuta dago. Hala, hainbat alderditan konfidentzialtasuna bermatzen da: informatzailearen eta komunikazioan aipatutako edozein hirugarrenen identitatean, komunikazioa kudeatzeko eta izapidetzeko egiten diren jardueretan, eta datuen babesean, baimenik ez duten pertsonak datuok eskuratzea eragotziz.
- Komunikazioak idatziz edo ahoz, edo bi modutan, aurkezteko aukera ematen du.
- Entitatearen barruan ezar daitezkeen barruko informazio-kanalak integratzen dira.
- Bermatzen da aurkeztu diren komunikazioak modu eraginkorrean trata daitezkeela dagokion unitatearen edo organismoaren barruan, balizko irregulartasunaren berri izaten lehena entitatea edo organismoa bera izan dadin.
- Udal-entitatearen barruko informazio-sistemaren eta euren informazio-kanala ezartzera behartuta dauden mendeko entitateen barruko informazio-sistemaren arteko independentzia eta bereizketa bermatzen dira.
- Barruko informazio-sistemaren arduradun bat izendatzen da buru.
- Barruko informazio-sistemaren eta informatzailearen defentsaren alorreko printzipio orokorrak behar bezala iragarri beharko dira udal-entitatean edo haren mendeko entitateetan.
- Jasotako informazioak kudeatzeko prozedura bat onartzen da.
- Entitate edo organismoaren barruan informatzaileak babesteko bermeak ezartzen dira.
- Jasotako informazioen eta ekarri dituzten barne-ikerketen erregistro-liburu bat dago, eta, nolahi ere, 2/2023 Legean aurreikusitako konfidentzialtasun-baldintzak bermatzen dira.

5.- BARRUKO INFORMAZIO-KANALA

Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa eta ustelkeriaren aurkako borroka arautzen dituen otsailaren 20ko 2/2023 Legean ezarritakoaren babesean, barruko informazio-kanala sortzen da. Kanal hori 2/2023 Legearen 2. artikuluan jasotako ekintzak edo ez-egiteak biltzen dituen informazioa jasotzeko bide egokitzat jotzen da.

Konfidentzialtasuna kanal horren funtzionamendurako funtsezko baldintza da. Modu seguruan diseinatu eta kudeatuko da, informatzailearen eta informazioan aipatutako hirugarren pertsonen identitatearen konfidentzialtasuna bermatzeko. Gainera, informazioa kudeatzeko eta izapidetzeko egiten diren jardueren konfidentzialtasuna ziurtatuko da.

Barruko informazio-sistemaren arduradunak barruko kanalaren funtzionamendua kudeatuko du, eta bermatuko du ez dela errepresaliarik egongo eta informatzailearen konfidentziasuna gordeko dela.

Berrogeita hamar langileko muga gainditzen ez duten mendeko entitateek, hala adosten badute, barruko informazio-sistema eta ikerketetara eta izapideetara bideratutako baliabideak SURBISArekin partekatuko dituzte.

6.- BARRUKO INFORMAZIO-SISTEMAREN ARDURADUNA

SURBISAren barruko informazio-sistemaren arduradun izendatzen da Sozietatearen Zuzendari Nagusiaren titularra, eta Alkatetzako Zerbitzu Orokorretako Zuzendariordetzaren laguntza izango du bere eginkizunak betetzeko, legearen 8.4 artikuluan ezarritako baldintzetan eta organo eskudunak izendatuko du.

Barruko informazio-sistemaren arduradunari dagokio sistema osoa kudeatzea jarduera-eremu bakoitzean, eta arau-hausteei buruzko informazioak arduraz izapidetzea. Entitateko edo organismoko gainerako organoetatik modu independente eta autonomoan bete beharko ditu bere eginkizunak, ezin izango du inolako jarraibiderik jaso eginkizun horiek betetzean, eta eginkizun horiek betetzeko behar diren giza baliabide eta baliabide material guztiak izan beharko ditu.

Barruko informazio-sistemako arduradunak konfidentziasunerako eta segurtasunerako berme guztiak eskainiko ditu daukan informazioari dagokionez.

Barruko informazio-sistemako arduradunaren funtzioak hauek dira:

- a) Berez edo esleitutako langileen bidez egitea dagozkion egiaztapen-lanak.
- b) Komunikazioak kudeatzea.
- c) Egitateak egiaztatzeari amaiera ematen dion gomendioa egitea.
- d) Berariaz sortutako datu pertsonalen fitxategiaren kudeaketa operatiboa bere gain hartzea.
- e) Pertsonak eta enplegatu publikoek zuzenbidearen aurkako balizko jokabideak modu konfidentzian jakinarazten dituztela zaintzea, komunikazioa fede onez egiten duenari kalterik eragin gabe.
- f) Gertakariak egiaztatzeko prozesuan behar den babesa ematea kargudunei eta gainerako enplegatu publikoei.
- g) Urteko memoria egitea eta Gobernu Batzordeari aurkeztea. Berrogeita hamar langiletik gora ez dituzten mendeko entitateen kasuan, memoria hori dagokion organo eskudunari aurkeztuko zaio.

- h) Balio etikoen, jokabide-arauen eta gobernu onaren arauen aurkako jarduketak prebenitzeko neurriak eta prestakuntza-neurriak bultzatzea.
- i) Zuzenbidearen, arauen eta aipatutako balioen aurkako jokabideen inguruan egon daitezkeen interpretazio-zalantzak ebaztea.

7.- INFORMAZIOA JASOTZEA

1. Informazioa modu anonimoan eman daiteke. Bestela, informatzailearen nortasuna gordeko da, eta ezingo zaie hirugarrenei jakinarazi.
2. Informazioa idatziz eman ahalko da (posta arruntez edo barruko informazio-kanalera zuzendutako edozein bitarteko elektronikoren bidez), edo ahoz (telefonoz edo ahots-mezularitzako sistemaren bidez). Informatzaileak eskatuta, bilera presentzial baten bidez ere aurkeztu ahal izango da, gehienez ere zazpi eguneko epean. Ahozko komunikazioaren kasuan, informatzaileari ohartaraziko zaio komunikazioa grabatuko dela, eta bere datuen tratamenduaren berri emango zaio, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera.

Informazioa aurkeztean, informatzaileak posta-helbide bat, helbide elektronikoa bat edo leku seguru bat adierazi ahal izango ditu jakinarazpenak jasotzeko; era berean, berariaz uko egin ahal izango dio informazioaren ondorioz barruko informazio-sistemaren arduradunak egindako jarduketan edozein komunikazio jasotzeari.

Ahozko komunikazioak (batzar presentzialaren bidez, telefonoz nahiz ahots-mezuz egindakoak barne) modu hauetako batean dokumentatu beharko ditu barruko informazio-sistemako arduradunak:

- elkarrizketa formatu seguru, iraunkor eta irisgarri baten bidez grabatuz, edo
- informazioa tratatzeko erantzukizuna daukan pertsonak elkarrizketa osorik eta zehazki transkribatuz.

Datuen babesari buruzko araudiaren arabera dagozkion eskubideez gain, mezuaren transkripzioa sinadura bidez egiaztatzeko, zuzentzeko eta onartzeko aukera emango zaio informatzaileari.

3. Informazioa aurkeztu ondoren, informazioa kudeatzeko sisteman erregistratuko da eta identifikazio-kode bat esleituko zaio. Informazioa kudeatzeko sistema datu-base seguru batean egongo da, eta barruko informazio-sistemaren arduradunak soilik izango du

sarbidea. Bertan, jasotako komunikazio guztiak erregistratuko dira, honako datu hauek betez:

- Jaso den eguna.
 - Identifikazio-kodea.
 - Egindako jarduketak.
 - Hartutako neurriak.
 - Itxiera-data.
4. Informazioa jaso eta gehienez ere bost egun balioduneko epean, jaso izanaren adierazpena egingo da, salbu eta informatzaileak berariaz uko egin badio ikerketari buruzko komunikazioak jasotzeari, edo barruko informazio-sistemaren arduradunak arrazoiz uste badu informazioaren hartu-agiriak informatzailearen nortasunaren babesa arriskuan jarriko lukeela.

8.- ONARTZEKO IZAPIDEA

1. Informazioa erregistratu ondoren, barruko informazio-sistemaren arduradunak egiaztatu beharko du informazioak 2/2023 Legearen aplikazio-eremuaren barruan dauden gertaerak edo jokabideak azaltzen dituen.
2. Aurretiazko azterketa hori egin ondoren, barruko informazio-sistemaren arduradunak erabaki hauetako bat hartuko du, gehienez ere hamar egun balioduneko epean, informazioa erregistroan sartzen den egunetik zenbatzen hasita:
 - a) Komunikazioa ez onartzea, honako kasu hauetan:
 - Kontatutako gertaerek inolako egiantzik ez dutenean.
 - Azaldutako gertaerek 2/2023 Legearen aplikazio-eremuko ordenamendu juridikoa urratzen ez dutenean.
 - Komunikazioak argi eta garbi oinarririk ez duenean edo, barruko informazio-sistemaren arduradunaren iritziz, delitu bat eginez lortu izanaren arrazoizko zantzuak daudenean. Azken kasu horretan, ez onartzeaz gain, delitutzat jotzen diren egitateen zerrenda zehatza igorriko zaio Fiskaltzari.
 - Komunikazioak ez daukanean arau-hausteei buruzko informazio berri eta esanguratsurik prozedura egokiak hasi arazi dituen aurreko komunikazioaren aldean, salbu eta egitatez edo zuzenbidez inguruabar berriak badaude eta jarraipen ezberdina justifikatzen badute. Halako kasuetan, barruko informazio-sistemako arduradunak ebazpena modu arrazoituan jakinaraziko du.

Onarpen eza hurrengo bost egun baliodunetan jakinaraziko zaio informatzaileari, salbu eta komunikazioa anonimoa izan bada edo informatzaileak barruko informazio-sistemako arduradunaren komunikazioak jasotzeari uko egin badio.

b) Komunikazioa izapidetzeko onartzea.

Izapidetzeko onartzen bada, hurrengo bost egun baliodunetan jakinaraziko zaio informatzaileari, salbu eta komunikazioa anonimoa izan bada edo informatzaileak barruko informazio-sistemako arduradunaren komunikazioak jasotzeari uko egin badio.

c) Informazioa Fiskaltzari berehala bidaltzea, baldin eta egitateek delitu zantzua badute, edo Europako Fiskaltzari, baldin eta egitateek Europar Batasunaren finantza-interesetan eragiten badute.

d) Komunikazioa izapidetzeko eskumena daukan agintaritzari, entitateari edo organismoari bidaltzea.

9.- INSTRUKZIOA

1. Instrukzioan, azaldutako gertaeren egiantza ziurtatzeko jarduketa guztiak sartuko dira.
2. Bermatuko da informazioa dagokion pertsonak horren berri izatea, baita laburrean azaldutako gertaeren berri ere izatea. Halaber, alegazioak idatziz aurkezteko eta bere datu pertsonalen tratamendua egiteko eskubidea duela jakinaraziko zaio. Halere, informazio hori entzunaldi-izapidean eman ahalko zaio, baldin eta uste bada aldez aurretik jakinarazteak frogak ezkutatzea, suntsitzea edo aldatzea eragin dezakeela.

Eraginpeko subjektuei ez zaie inola ere informatzailearen identitatearen berri emango, eta ez zaie komunikazioa erakutsiko. Instrukzioan zehar, komunikazioaren berri emango zaio ikertuari, gertakarien zerrenda laburra azalduz. Informazio hori entzunaldi-izapidean egin ahalko da, baldin eta uste bada aldez aurretik jakinarazteak frogak ezkutatzea, suntsitzea edo aldatzea eragin dezakeela.

3. Alegazioak idatziz aurkezteko eskubidea baztertu gabe, instrukzioak barnean hartuko du, ahal den guztietan, ukitutako pertsonarekin elkarrizketa bat egitea. Elkarrizketa horretan, errugabetasun-presuntzioa erabat errespetatuko da betiere, bere bertsioa azaltzeko aukera eskainiko zaio, eta egokitzen jotzen dituen frogabideak aurkezteko gonbita egingo zaio.

Eragindako pertsonaren defentsa-eskubidea bermatze aldera, pertsona horrek espedientea ikusi ahal izango du (informatzailea identifika dezakeen informaziorik eman gabe). Edozein unetan entzun ahalko zaio, eta abokatuaren laguntzarekin agertzeko aukera duela ohartaraziko zaio.

4. Barruko informazio-sistemaren arduradunarekin kolaboratzen duten eta ikerketa-lanak egiten dituzten funtzionarioek isilpean gorde beharko dute horrela jakiten duten informazioa.
5. Bilboko Udaleko eta haren mendeko entitateetako langile guztiek lankidetzan jardun beharko dute barruko informazio-sistemaren arduradunarekin, eta nahitaez erantzun beharko diete izapidetzen ari diren prozedurekin lotutako dokumentazioa, datuak edo edozein informazio emateko egiten zaizkien eskaerei, eskatzen zaizkien datu pertsonalak barne.

10.- JARDUKETEN AMAIERA

1. Jarduketa guztiak amaituta, barruko informazio-sistemaren arduradunak txosten bat egingo du, gutxienez honako hauek jasoko dituenak:
 - a) Azaldutako gertakarien azalpena, komunikazioaren identifikazio-kodearekin eta erregistro-datarekin batera.
 - b) Komunikazioaren sailkapena, izapidetzeko lehentasuna duen edo ez jakiteko.
 - c) Egitateen egiantza aztertzeko egindako jarduketak.
 - d) Instrukzioan ateratako ondorioak, eta eginbideen eta haien oinarri diren zantzuen balorazioa.
2. Txostena egin ondoren, barruko informazio-sistemaren arduradunak honako erabaki hauetakoren bat hartuko du:
 - a) Espedientea artxibatzea. Informatzaileari jakinaraziko zaio, eta, hala badagokio, eragindako pertsonari. Halako kasuetan, informatzaileak lege honetan aurreikusitako babeserako eskubidea izango du, salbu eta, instrukzio-fasean egindako jarduketan ondorioz, ondorioztatzen bada informazioa, egindako jarduketak ikusita, ez zela onartu behar, aurretik aurreikusitako arrazoiren bat dagoelako.
 - b) Fiskaltzari igortzea, baldin eta, hasiera batean egitateak delitu izan daitezkeelako zantzurik ikusten ez bada ere, instrukziotik hala dela ondorioztatzen bada. Delituak Europar Batasunaren finantza-interesei eragiten badie, Europako Fiskaltzari igorriko zaio.
 - c) Egindako guztia eskumena duen agintaritzari helaraztea, izapideak egin ditzan.
 - d) Zehapen-prozedura hasteko erabakia hartzea.

3. Jarduketak amaitzeko eta informatzaileari erantzuteko epea, hala badagokio, ezin izango da hiru hilabetetik gorakoa izan, informazioa erregistroan sartzen denetik zenbatzen hasita. Erabakia edozein dela ere, informatzaileari jakinaraziko zaio, salbu eta horri uko egin badio edo komunikazioa anonimoa bada.
4. Barruko informazio-sistemaren arduradunak jarduketa hauetan hartutako erabakien aurka ezin izango da errekurtsorik jarri administrazio-bidean ez administrazioarekiko auzibidean; hala ere, adierazitako gertaeren ondorioz has litekeen zehapen-prozedurari amaiera ematen dion ebazpenaren aurka administrazio-errekurtsioa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri ahal izango da.

11.- INFORMATZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Informatzaileek eskubide hauek izango dituzte:

- a) Komunikazioa modu anonimoan edo ez-anonimoan egin nahi duen erabakitzea; bigarren kasu horretan, informatzailearen identitatea gordetzea bermatuko da, hirugarren pertsoneri jakinarazi ez dakien.
- b) Komunikazioa ahoz edo idatziz formulatzea.
- c) Barruko informazio-sistemaren arduradunak ikerketaren inguruan egiten dituen komunikazioak jasotzeko helbidea, helbide elektronikoa edo leku segurua adieraztea.
- d) Barruko informazio-sistemaren arduradunaren komunikazioak jasotzeari uko egitea, egoki baderitzo.
- e) Barruko informazio-sistemaren arduradunaren aurrean agertzea, bere ekimenez edo hark eskatzen dionean. Egoki baderitzo, abokatuak lagunduko dio.
- f) Barruko informazio-sistemaren arduradunari eskatzea agerraldia bideokonferentzia bidez edo beste bitarteko telematiko seguru batzuen bidez egin dadila, informatzailearen identitatea eta komunikazioaren segurtasuna eta fideltasuna bermatzeko.
- g) Datu pertsonalak babesteko legeriak ematen dizkion eskubideak baliatzea.
- h) Bere salaketaren izapide-egoera eta ikerketaren emaitzak ezagutzea.

Betebehar hauek izango dituzte:

- a) Barruko informazio-kanala erabiltzen duten pertsonen zantzu arrazoizkoak edo nahikoak eduki beharko dituzte jakinarazten duten informazioaren egiazkotasunaz. Ezin izango da egin komunikazio orokorrik, fede txarrekorrik edo eskubideez abusatzen duenik.
- b) Informazio-emaileek ahalik eta xeheen azaldu beharko dituzte jakinarazten dituzten egitate edo jokabideak, eta ahalik eta dokumentazio gehien eman beharko dute deskribatutako egoeraz edo frogak eskuratzeko zantzu objektiboez.

- c) Informazioa ematen duen pertsonak bere gain hartzen du bera identifikatzen duen kode alfanumerikoa kontserbatzearen ardurak, segurtasun-neurri egokiekin. Gainera, barruko informazio-sistemaren arduradunarekin harremanetan sartzeko eta informazio esanguratsua gehitzeko bakarrik erabiliko du.

12.- JAKINARAZITAKO JOKABIDEA EGOZTEN ZAION PERTSONAREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

Antolamendu juridikoaren aurkako jokabidea egozten zaien pertsonak honako eskubide eta betebeharrak daukate.

Salatutako pertsonak eskubide hauek dituzte:

- a) Ahalik eta diskrezio handienez jokatuko da gertaerak egiaztatzerakoan eta, oro har, barruko komunikazio-kanala kudeatzerakoan.
- b) Aurkeztutako komunikazioari buruzko informazioa berehala jasotzeko eskubidea, salbu eta –modu arrazoitu batean eta proportzionaltasun-printzipioaren arabera– sekretua gorde behar bada gertaerak egiaztatzeko.
- c) Ez dadin egin edo eman zuzenean edo zeharka izenen bat aipatzen duen ondorioz edo gomendiorik, baldin eta jakinarazitako egitateak ezagutzeko eta bere iritzia jasota uzteko benetako aukerarik izan ez badu.
- d) Datuak inori ez jakinaraztea ez lagatzea, harik eta gertaerak egiaztatzean agerian gelditu arte jakinarazitako jokabideak egiantza duela edo jokabide hori benetan egin dela. Agintaritza judizial eskudunari edo diziplinazko agintaritza eskudunari datuak jakinarazteak ez du esan nahi aldez aurretik balizko arduradunari jakinarazi behar zaionik.

13.- DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Barruko komunikazio-kanal hori aplikatzearen ondoriozko datu pertsonalen tratamendua honako hauetan xedatutakoaren arabera arautuko da: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa; 7/2021 Lege Organikoa, maiatzaren 26koa, Arau-hauste penalak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatzen diren datu pertsonalak babestekoa; eta 2/2023 Legea, otsailaren 20koa, Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa eta ustelkeriaren aurkako borroka arautzen dituen (VI. tituluaren aurreikuspenak).

14.- BARRUKO INFORMAZIO-KANALARI BURUZKO INFORMAZIOA

SURBISAren web-orrian, hasiera orrian eta erraz identifikatzeko moduko atal bereizi batean, argi eta erraz eskuratzeko moduan argitaratuko da informazio egokia, batik bat barruko informazio-kanalaren erabilerari buruzkoa eta kudeaketa-prozeduraren funtsezko printzipioei buruzkoa.

15.- BABES-BALDINTZAK

1. Arau-haustek jakinarazten edo ezagutarazten dituzten pertsonak babes-eskubidea izango dute, baldin eta inguruabar hauek gertatzen badira:
 - a) Aipatutako informazioa, komunikatu edo jakinarazi den unean, egiazkoa dela eta informazio hori araudi honen aplikazio-eremuan sartzen dela pentsatzeko zentzuzko arrazoiak badaude, nahiz eta froga erabakigarriak aurkeztu ez.
 - b) Jakinarazpena edo azalpena aurreikusitako eskakizunen arabera egin bada.
2. Berariaz geratzen dira aurreikusitako babesetik kanpo honako hauen berri ematen duten pertsonak:
 - a) Barruko informazio-kanalen baten bidez edo aurreikusitako arrazoiren batengatik onartu ez diren komunikazioetako informazioak.
 - b) Pertsonen arteko gatazkei buruzko erreklamazioei lotutako informazioak, edo informatzaileari eta komunikazioan edo jakinarazpenean aipatzen diren pertsonen soilik eragiten dieten informazioak.
 - c) Jendearentzat erabat eskuragarri dauden edo zurrumurru hutsak diren informazioak.
 - d) Araudi honen aplikazio-eremuan sartzen ez diren ekintzei edo ez-egiteei buruzko informazioak.
3. Ekintzei edo ez-egiteei buruzko informazioa modu anonimoan jendaurrean jakinarazi edo ezagutarazi duten pertsonak, ondoren identifikatu badira eta eranskin honetan aurreikusitako baldintzak betetzen badituzte, deskribatutako babeserako eskubidea izango dute.

16.- ERREPRESALIEN DEBEKUA

1. Berariaz debekatzen dira errepresaliak dakartzaten ekintzak, barne hartuta errepresalia-mehatxuak eta errepresalia-ahaleginak, araudi honetan aurreikusitakoaren arabera jakinarazpen bat aurkezten duten pertsonen aurka.

2. Errepresalia da legeak debekatzen duen edozein ekintza edo ez-egite, edo, zuzenean edo zeharka, halakoak jasaten dituzten pertsonak lan- edo lanbide-testuinguruan desabantaila-egoera zehatz batean jartzen dituen tratu kaltegarria dakarren edozein ekintza edo ez-egite, informatzaile izateagatik edo zerbait jendaurrean jakitera emateagatik egina.